

# BILBO METROPOLITARREKO EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALA

**Behin-behineko Onespenerako Dokumentua**



**G DOKUMENTUA**

**GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN  
AURRETIAZKO EBALUAZIO-TXOSTENA**

**2023KO MARTXOA**



## **PLANAREN SUSTAPENA, EKIMENA ETA ZUZENDARITZA**

Imanol Pradales. AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO FORU DIPUTATUA  
Gorka Estebez. LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARI NAGUSIA  
Jose M<sup>a</sup> Bilbao. LURRALDE KOHESIORAKO ZUZENDARIORDE NAGUSIA

Idoia Garay. Lurralde Antolamendurako Saileko Burua





## GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOAREN-TXOSTENA

Izena:	<b>BILBO METROPOLITARREKO EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALAREN BERRIKUSPENA</b>
Unitate Arduraduna:	<b>LURRALDE ANTOLAMENDUKO SAILA // LURRALDE KOHESIOAREN ZUZENDARIORETZA NAGUSIA // LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA</b>
Saila:	<b>AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO SAILA</b>



## XEDAPEN ARAUEMAILEAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

### XEDAPEN ARAUEMAILEAREN DESKRIBAPENA

<b>Xedapen arauemaile mota:</b> BFaren Gobernu Kontseiluaren erabakia, behin-behineko onarpenerako / EJren Gobernu Kontseiluaren dekretua, behin betiko onartzeko	
<b>Hala badagokio, xedapenarekin zerikusia duten beste xedapenak, planak eta abar adieraztea:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (EJren 128/2019 Dekretua)</li> <li>- Indarrean dagoen Bilbo Metropolitarrako Lurralde Plan Partziala (EJren 179/2006 Dekretua)</li> </ul>
<b>Xedapenaren helburua/k:</b> Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren lurralde antolamendua ezartzea	
<p>Xedapenaren hartzaileak: Bilbo Metopolitarrean bizi diren biztanleak eta/edo bertako biztanle aktiboak. Honako udalerrri hauek osatzen dute: Abanto y Ciérvana – Abanto Zierbena, Alonsotegi, Arrankudiaga-Zollo, Arrigorriaga, Barakaldo, Barrika, Basauri, Berango, Bilbo, Derio, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Gorniz, Larrabetzu, Leioa, Lemoiz, Lezama, Loiu, Muskiz, Ortuella, Plentzia, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Sopela, Trapagaran, Ugao, Urduliz, Zamudio, Zaratamo, Zeberio, Zierbena.</p> <p>EUSTATen datuen arabera, 2016an Bilbo Metopolitarrean 892.747 pertsona bizi ziren; horietatik 465.950 emakumeak ziren (% 52, guztira) eta 426.797 gizonak (% 48, guztira). 2022an, ehunekoak mantendu egin ziren, biztanleria 891.086 pertsonakoa izan zen (465.366 emakume eta 425.720 gizon).</p>	
<b>Erabilitako baliabide ekonomikoak:</b> Azterketa ekonomiko finantzarioaren arabera, kostu zenbagarria 4.342.528.000 euro dela kalkulatu da. Gehienbat Bizkaiko Foru Aldundiak, estatuko administrazioek, Eusko Jaurlaritzak eta udalek onartutako inbertsioak.	
<p>Xedapenak ba al du <b>emakumeen eta gizonen berdintasunari</b> loturiko helbururik?</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Bai // <input type="checkbox"/> Ez</p>	

Adierazi emakumeen eta gizonen berdintasunari lotutako helburuak, helburu horiek lortzeko xedapenaren neurriak eta ebaluazio adierazleak (azken horretan kontuan hartu behar dira honako ebaluazio-irizpide hauek: koherentzia, estaldura, eraginkortasuna, ekitatea, gogobetetasuna, informazioaren eta arretaren kalitatea, gardentasuna, partaidetza, eragina eta jasangarritasuna):

Jasotako helburu gehienek lotura zuzenik ez badute ere emakumeen eta gizonen berdintasunarekin, uste da bat datozela lurralde eta hirigintzako plangintzari aplikatutako genero ikuspegiaren printzipioekin; beraz, espero da eragin positiboa izatea emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari dagokionez lurraldeko baliabideak eskuratzean eta kontziliazio erantzukidea sustatzean.



<b>EMAKUMEEN eta GIZONEN BERDINTASUNARI LOTUTAKO xedapenaren HELBURUAK</b>	<b>HELBURUEN Kuantifikazioa</b>	<b>HELBURUEI ERANTZUTEKO xedapenean jasotako NEURRIAK</b>	<b>HELBURUEN BETETZE MAILA neurtzeko proposaturiko EBALUAZIO-ADIERAZLEAK</b>
<p><b>2. Helburu Estrategikoa (HE-2)</b> <i>Hiri-habitat eredua</i></p> <p><b>Hiri-habitataren eredu orekatuagoa</b> ezartzea etxebizitza eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruen beharren eta eskaintzaren artean, xede honekin: <b>natura eta landa ingurunearen gaineko eragina eta lursail berrien urbanizazioa saihestea</b>; lurzoru zaharkituak eta kutsatuak <b>berroneratzea</b>; eraikinak <b>birgaitzea</b> eta tipologia egokitzea; arkitektura eta hirigintzako <b>oztopoak kentzea</b>; espazio libreetarako eta berdeguneetarako sarbidea lortzea; eta garraio publikoko sare koordinatu <b>egoki bat izatea</b>, erdigunearen eta metropoliko eremuen arteko <b>loturak errazteko</b>, bai eta beste lurralde batzuekin ere (11. artikulua).</p>	<p>2/2006 Legearen eta horiek garatzen dituen 123/2012 Dekretuaren hirigintza estandarrak.</p>	<p>Honako neurri hauek zehaztu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Babes publikoko araubidepeko etxebizitzetarako lur erreserba (68.5 eta 68.6 artikulua).</li> <li>&gt; Lau arlo estrategiko hauek zehazten dira berrantolaketarako egoera nagusi gisa: Bilboko itsasadarraren eremu estrategikoa, hiri continuumean eta erdigunean duen garrantziagatik nabarmentzen dena: Etxebarri-Basauri-Galdakao Eraldaketa ardatza, Txorierriko Berrikuntzaren ardatza eta Meatzaldea (57. artikulua). Eremu horietan gidalerroak ezartzen dira erabilerean nahasketa bultzatzeko, batez ere erabiltzen ez diren edo narriatuta dauden jarduera ekonomikoetarako lurzorua berritzeko, ibilbideen jarraitutasuna eta espazio publikoen kateatzea nabarmentzeko, bai eta garraio kolektiboa bultzatzeko eta jarduera ekonomikoetarako eta bizitegi jardueretarako lurzoruen arteko loturak hobetzeko ere.</li> <li>&gt; Hirigintza oztopoak kentzeko, hainbat neurri zehazten dira. Alde batetik, trenbideak dakarren hesia kentzeko azterlana proposatzen da, hegoaldeko saihesbide bat eta hainbat lurperatze egiteari lotuta (79.2.h, 80.2.c eta 80.2.f artikulua). Bestalde, bide trazadurek hartutako zatiak hiri bide bihurtzea proposatzen da, aldaerak martxan jartzearen ondorioz funtzionaltasuna galdu badute edo galtzea aurreikusten bada (81.2.e artikulua), eta, azkenik, hiri barruko birmoldaketarako eremuak sortzea sustatzen da, ibilgailu pribaturako ordezkotako ibilbideak dauden tokietan; leku horietan, garraio kolektiboa, publikoa edo diskrezionala izango da onartzen den bakarra, oinezkoen eta bizikleten erabilerekin batera (81.2.e artikulua).</li> </ul>	<p><b>Oro har:</b> Lurralde Plan Partzialeko aurreikuspen eta zehaztapenen betetze maila egiaztatzeko, memoria bat egingo da lau urtean behin (8.1 artikulua).</p>



<p><b>Helburua</b> <i>Kokaguneen eredia</i></p> <p><b>Kokagune eredu koherente, funtzionala, orekatua eta jasangarria lortzea, ingurumen, ekonomia, gizarte, kultura eta osasun alderdiak</b> biltzen dituen (55.1 artikulua).</p>	<p>HHP finkatzea</p>	<p>&gt; Biztanleen aniztasun funtzional eta sozialari eta irisgarritasun unibertsalaren premiei arreta eskaintzea, bai eta topaketa, autonomia eta aisialdiari bide ematea ere, naturara eta ekipamenduetara gerturatuz. Horretarako, irisgarritasun unibertsalari buruzko jarraibide espezifikoez gain (10. titulua. 2. kapitulua) tipologiak bizileku formula berrien eskari gero eta handiagoetara egokitzea ere proposatzen da (62.2 artikulua), bai eta birgaitzea sustatzea ere, etxebizitzaren bizigarritasuna eta irisgarritasuna bultzatuz (62.2 artikulua).</p> <p>&gt; Jarduera ekonomikoak gainerako hiri erabilerekiko bateragarritasunaren arabera planifikatzea, erabileren nahasketa bilatuz, hiri bilbeko jarduera ekonomiko berriak ezartzen lagunduz, hiria erabileretan segmentatu ez dadin (72.2 artikulua).</p> <p>&gt; Hiri habitataren prestakuntzan pertsonen osasuna eta ongizatea kontuan hartzea, eskala guztietan (11.4 eta 11.7 artikulua). Horretarako, jarraibide espezifikokoak zehazten dira (10. titulua, 4. kapitulua).</p> <p>&gt; Kultura paisaiak bultzatzea, eta sustatuko da emakumeek paisaia horietan eta kulturen egiten dituzten ekarpenak jasotzea eta haien balioa nabarmentzea (106. artikulua).</p>	<p><b>Oro har:</b> Lurralde Plan Partzialeko aurreikuspen eta zehaztapenen betetze maila egiaztatzeko, memoria bat egingo da lau urtean behin (8.1 artikulua).</p>
<p><b>Helburua</b> <i>Berroneratzea eta berritzea</i></p> <p>Dauden <b>hiri ehunetan</b> eremu urbanizatuak <b>dentsifikatzea</b> eta eremu zaharkitu, narriatu edo gutxiegi erabiliak <b>birziklatzea</b> lehenetsiz esku hartzea (55.2 artikulua).</p>	<p>Berritzeko eta berroneratzeko eremuak mugatzea</p>	<p>&gt; Eremu funtzionaleko udalerririk bakoitzean hiri berroneratzeko eta barne eraberritzeko jarduketak lehenestea. Horretarako, garatu gabeko lurzorua berroneratzeko, berritzeko, birgaitzeko, birdentsifikatzeko, desklasifikatzeko eta hiri azpiegitura berdea garatzeko esku hartzeko moduak ezartzen dira (60., 61., 62., 63., 64. eta 65. artikulua), 10. planoan ("Hiri- Habitataren Antolamendu orokorra") berroneratzeko eta berritzeko jarduketak zehaztuz. Halaber, hiri hazkundeko perimetro bat ezartzen da, finkatutako eremuekin edo udal plangintzak garatzeko aurreikusitakoekin jarraituta, urbanizazio isolatuak eta egungo hiriarekin loturarik ez dutenak saihestuz (56. artikulua).</p> <p>&gt; Auzoak berroneratzeko, espazio libre berriak sortuko dira gehiegizko eraikuntza dentsitatearen ondorioz pilatuta dauden edo behar diren hornidurarik ez duten eremuetan (60.2 artikulua).</p>	



		<p>&gt; Hiri berrikuntzan, erabilera mistoak finkatu ahalko dira, hala nola kalitate handiko jarduera ekonomikoak, metropoli mailako ekipamenduak eta bizitokia, eta kokagune berrietan garrantzia handia emango zaie berdeguneei, espazio libreei, oinezkoentzako zatiei, bidegorriei eta garraio publikoko sistemei (61.2 artikulua).</p> <p>&gt; Birdentsifikazioa dela eta, hiri intentsitate handiagoa ekarriko du, bai bizitegi dentsitatean, bai zerbitzu zuzkiduran, bai hirugarren sektoreko erabilera eta jarduera komertzialen edo bulegoen aniztasunean, proportzio txikian. Lehentasuna emango zaie garraiobide kolektiboetatik gertu dauden eta motorizatu gabe dauden lurzoruei, lotura handiagoa lortzeko (63. artikulua).</p>	
<p><b>Helburua</b>  <i>Jarduera ekonomikoak</i></p> <p>Jarduera ekonomikoen eskaintza doitzea, <b>eremu funtzionalean</b>, ahal den heinean, azpiero bakoitzean <b>oreka</b> bilatuz (71. artikulua).</p>		<p>&gt; Lan eskaintzaren eta biztanleen bizitokiaren eta mugikortasunaren arteko harremana hobetzea. Ahal den neurrian enpleguen kokapena finkatutako hirialdeei lotzea. Alde horretatik, erabileren nahasketa sustatzeaz gain, mugikortasuna jarduera ekonomikoko espazioen funtzionamenduaren funtsezko zati gisa proposatzen da; horretarako, jarduera ekonomikoen eremuak motorrik gabeko ibilbideen sarearekin lotu egiten da, oinezkoen eta bizikleten sarbidea ahalbidetuz, eta garraio publikoaren erabilera sustatzen da ibilgailu pribatuaren aldean (72.3 artikulua). Gainera, jarduera ekonomikoko lurzorua udalerrien eta lurralde eremuen artean banatutako lokalizazio eredu finkatu nahi da, tokiko autonomia, deszentralizazio funtzionala eta eguneroko joan-etorrien beharrak murriztea sustatuz (71. artikulua).</p> <p>&gt; Hiri bilbeko merkataritza ingurukoaren aurretik jartzea (72.4 artikulua), herri eta hirietako bizitza sustatzeko eta izan nahi ez den mugikortasuna saihesteko. Horretarako, inguruko merkataritza gunen handien azalera mugatzea proposatzen da (71. eta 72.4 artikulua). Ekimen horiek 5. helburu estrategikoaren bat datoz: erabilera handiko ekipamendu eta aisialdi eremu berriak ez sortzea, lehendik dauden bilbeekin bat ez datozenak (11.5 artikulua).</p>	<p><b>Oro har:</b> Lurralde Plan Partzialeko aurreikuspen eta zehaztapenen betetze maila egiaztatzeko, memoria bat egingo da lau urtean behin (8.1 artikulua).</p>



<p><b>3. Helburu Estrategikoa (HE-3)</b> <i>Mugikortasun eredua</i></p> <p>Mugikortasunaren ereduak aldatzea, bai metropoli eremuaren barruko joan-etorrietarako, bai kanporako joan-etorrietarako, <b>intermodalitatean, garraio publikorako</b> irisgarritasunean eta <b>oinezkoen eta bizikleten</b> moduetan oinarrituta (11.3 artikulua).</p>		<p>Onorengo helburuei lotutako neurriak zehazten dira, bai eta modu ez-motordunak eta garraio kolektiboa nahiz intermodalitatea integratzea ere, ibilgailuen erabilera erabiltzaile guztientzat murriztuz, haien adina, izaera soziala edo generoa eta joan-etorria egiteko zioa kontuan hartu gabe (77.2, 79., 112.2.A eta 113.2.B artikulua).</p>	
<p><b>Helburua</b> <i>Barne loturak</i></p> <p>Barne loturetan, hiri eremuak <b>garraio kolektiboaren, motorrik gabeko moduen eta intermodalitatearen</b> bidez elkarrekin lotuko direla bermatzea, bizilekuaren, lanaren eta aisialdiaren arteko eguneroko joan-etorrietarako, bai eta ingurune naturalarekin eta landa-ingurunearekin ere (74.2.1 eta 77.2 artikulua).</p>		<p>&gt; <b>Gaitasun handiko garraio kolektiboaren aukerak indartu nahi dira</b>, metropoli eremuen arteko joan-etorria bermatzeko eta, bereziki, itsasadarra egoteak dakarren oztopo fisikoa gainditzeko. Horretarako, <b>garraio publikoaren</b> eskaintza hobetzea proposatzen da, erakargarriagoa izan dadin transbordoak hobetuz –geltokiak egokitzea, irisgarritasuna hobetzea, itxarote denborak murriztea eta hiri ehunetan behar bezala integratzea– (77.2 artikulua).</p> <p>Alderdi horretan, <b>intermodalitateko</b> nodoak hobetzeko hainbat proposamen sartu dira, eta bereziki garrantzitsua da Abandoko geltokiarena (77.2 artikulua) eta metropoli garraiobide konektatzeko irizpideak eta intermodalitateko nodo berriak ezartzea, bai eta garraio kolektiboko lotura berriak ere (77. artikulua).</p> <p>Itsasadarrak sortzen duen oztopo fisikoa gainditzeko, proposatutako loturez gain, birgaitzeko eta berronertzeko maniobrak egingo diren eremuen arteko transbordadoreak mantentzea sustatuko da (82.2.c artikulua).</p> <p>&gt; Bizitoki eremuak eta lan jardueraren eta ekipamenduen eremuak batzeko <b>bizikleta bideak lehenestea</b>. Horretarako, oinezkoentzako eta bizikletetarako hiriarteko irisgarritasun sare bat proposatzen da eremu funtzional osoan, eguneroko joan-etorrietan hiriarteko mugikortasuna eta intermodalitateko nodo nagusiekiko lotura konpontzeko (79. artikulua). Xede horrekin, lehenesten dira biztanle gehiagori eta ekipamendu gehiagori, garraio geltoki gehiagori eta abarri balio dieten bizikletetarako sare zatiak (79.2.c artikulua).</p>	<p><b>Oro har:</b> Lurralde Plan Partzialeko aurreikuspen eta zehaztapenen betetze maila egiaztatzeko, memoria bat egingo da lau urtean behin (8.1 artikulua).</p>





		<p>&gt; <b>Garraio publikorako irisgarritasuna hobetzea</b> eremu funtzional orekatua errazten duten eremuetan, eta bizikletetarako eta oinezkoentzako baldintza seguruak eta erakargarriak dituzten ibilbideak erraztea, askotariko moduen bateragarritasuna sustatuz. Horretarako, gidalerroak proposatzen dira trafikoa arintzeko, bide elkarguneetako elementu zehatzak hobetzeko, bateragarri egiteko, etab. (77.2, 79.2, 81.2.e, 113.2.C.c eta 113.2.E.d artikulua).</p>	
<p><b>Helburua</b>  <i>Biztanleria (autoaren erabilera)</i></p> <p>Biztanleei lotuta, modu ez-motordunak eta garraio kolektiboa nahiz intermodalitatea integratzea ere, autoaren erabilera erabiltzaile guztientzat murriztuz, haien adina, izaera soziala edo generoa eta joan-etorria egiteko zioa kontuan hartu gabe (77.2, 79., 112.2.A eta 113.2.B artikulua).</p>		<p>Aurreko puntuan zehaztutako alderdiez gain:</p> <p>&gt; Lehendik dauden garraio kolektiboek lurraldea estaltzeko duten ahalmena aprobetxatzea, haien prestazioak optimizatzeko, haien arteko koordinazioaren bidez eta trukerako puntu gehiago ezarri. Trenbidearen garapena azpimarratzen da (80.2.d eta 80.2.g artikulua).</p> <p>Modu ez-motordunen eta kolektiboen arteko lotura handiagoa, intermodalitatean oinarritzen den egitura saretu batekin, irisgarritasuna kontuan hartuta joan-etorrien iraupenari, maiztasunari, kalitateari eta garraioen erosotasunari dagokienez (77.2, 79., 112.2.A eta 113.2.B artikulua). Eremu funtzionaleko eremuetan, garraio kolektiboetako zerbitzuak hobeto eta errazago eskuratzea sustatzen da (74.2.1 eta 77.2 artikulua).</p> <p>&gt; Erabiltzaileen premietarako diseinu irizpide espezifikoak integratzea, hirigintza oztopoak kentzeko (10. titulua. 2. Kapitulua, 80.2.c eta 80.2.f artikulua).</p>	<p><b>Oro har:</b> Lurralde Plan Partzialeko aurreikuspen eta zehaztapenen betetze maila egiaztatzeko, memoria bat egingo da lau urtean behin (8.1 artikulua).</p>



<p><b>4. Helburu Estrategikoa (HE-4)</b> <i>Ondare material eta immateriala eta paraje naturalak</i></p> <p>Ondare material eta immaterialari eta paraje naturalei buruzko ikuspegi bateratua ematea, identitate kolektiboaren eta aberastasun eta enplegu iturriaren adierazpen gisa, paisaia, monumentu eta ondare elementuak oinezkoentzako eta bizikletetarako ibilbideen bidez lotuz, hiri habitatari lotutako aisialdi eremuen sistema baten esparruan, aisialdirako ahalmena bultzatzeko eta herritarren osasuna eta ongizatea sustatzeko (11.4 artikulua).</p>		<p>&gt; Kultura paisaien balioa nabarmentzea bultzatzen da, emakumeek paisaiei egiten dizkieten ekarpenak indartuz (106. artikulua); herritarren parte-hartzea sustatzen da herritarrek hautematen eta nahi duten paisaiari buruzko plangintzan eta erabakiak hartzean (106. artikulua); eta herritarrek kultura ondarearen kontserbazioan parte har dezaten sustatzea, memoria kolektiboa, sentsibilizazioa eta erantzunkidetasuna adierazten duten elementuak identifikatzen parte hartuz (104. artikulua).</p>	
<p><b>7. Helburu Estrategikoa (HE-7)</b> <i>Zeharkako kontuak</i></p> <p>Proposatutako eredian zeharkako gai hauek berariaz integratzea: irisgarritasun unibertsala, genero ikuspegia, klima aldaketa, osasuna, euskara eta lurraldeen arteko harremana (11.7 artikulua).</p>		<p>&gt; Lurralde ereduak emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna bermatuko du baliabideak eskuratzeko eta hiriaz eta lurraldeaz gozatzeko, garraibideez, zerbitzuez eta ekipamenduez baliatzeko, eta kontziliazio erantzunkidea sustatuko du (10. titulua, 3. kapitulua, 112. artikulua).</p> <p>&gt; Genero ikuspegiari lotutako gidalerroak sartu dira, eta hauei buruzko orientabideak zehaztu: hiri eredu, mugikortasuna eta garraioa, espazio publikoa, etxebizitza, ekipamenduak, ondarea eta kultura paisaia, eta partaidetza nahiz gobernantza (112. artikulua).</p> <p>&gt; Genero ikuspegiari zeharka lotutako gidalerro espezifikoak ere sartu dira, mendekotasuna duten pertsonen autonomia sustatuz. Ildo horretan, irisgarritasun unibertsalari (10. titulua, 2. kapitulua) eta osasunari (10. titulua, 4. kapitulua) buruzko orientabideak sartu dira.</p>	<p><b>Oro har:</b> Lurralde Plan Partzialeko aurreikuspen eta zehaztapenen betetze maila egiaztatzeko, memoria bat egingo da lau urtean behin (8.1 artikulua).</p>
<p><b>9. Helburu Estrategikoa (HE-9)</b> <i>Lurralde mailako estrategia</i></p> <p>Lurralde estrategia orekatua, adimentsua, inklusiboa, elkarri lotutakoa eta partaidetua lortzea (11.9 artikulua).</p>		<p>&gt; Herritarren partaidetza jaso da LPParen berrikuspenean idazten hasi zenetik, hainbat foro, hitzaldi, partaidetza saio eta erakusketa publiko eginez. Gainera, telefono bidezko azterketa egin da, Bilbo Metropolitarrako lurralde plangintzan genero ikuspegia integratzeari buruzkoa.</p>	<p><b>Oro har:</b> Lurralde Plan Partzialeko aurreikuspen eta zehaztapenen betetze maila egiaztatzeko, memoria bat egingo da lau urtean behin (8.1 artikulua).</p>



## GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA:

### **Emakume eta gizon kopurua**

Aurretik xedapen, plan, eta halakorik izan balitz, zein izan da pertsona fisiko onuradunen edo hartzaileen kopurua?

Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (EJren 179/2006 Dekretua, irailaren 26koa). Pertsonen datuak LPP berrikusteko aurrerapenetik hartzen dira. Aurrerapen hori Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalan bizi diren pertsonen kopuruari dagokio, planaren indarraldiaren amaieran, kasu honetan, 2016an.

ZUZENEKO pertsona fisiko onuradunen edo hartzaileen kopurua		ZEHARKAKO pertsona fisiko onuradunen edo hartzaileen kopurua	
Kopurua, guztira:	900.307	Kopurua, guztira:	
<b>Emakume kopurua:</b>	<b>468.698</b>	<b>Emakume kopurua:</b>	
Gizon kopurua:	431.609	Gizon kopurua:	

Gizon eta emakumeengan zer eragin izan du?

Indarrean dagoen LPPren eragina ez da aztertu, generoaren eragin bereiztuaren arabera.

Hemen xedapenaren eraginpeko biztanleei buruzko datu kuantitatibo eta kualitatiboan gaineko informazioa bildu nahi da dagoen informazioa bilatuz (aurreko xedapen batetik ateratakoak ez direnak).

Adierazi xedapen horrek eragiten dion biztanleei buruzko informazioa lortzeko erabili duzun iturria:



AZTERTUTAKO ALDERDIA	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	ITURRIA (URTEA)
Biztanle kopurua (2016)	900.307	<b>468.698</b>	431.609	Aurrerapena
Proiektatutako biztanle kopurua (2033)	832.959	<b>436.124</b>	396.835	
Sentsibilizazioan parte hartzea eta informazioa eta diagnostikoa zabaltzea – 2., 3. eta 4. faseak (elkarriketak, tailerrak, formularioak, foroak...)	483 *63 parte-hartzailek ez dute esan emakumeak ala gizonak diren	<b>161</b>	259	Parte-hartzeari buruzko azken txostena eta aurrerapenari aurkeztutako iradokizunak, aukerak eta proposamenak.
Aurrerapena jendaurrean jartzen parte hartzea – 5. fasea (tailerrak, formularioak...)	116 *80 parte-hartzailek ez dute esan emakumeak ala gizonak diren	<b>27</b>	9	
Bilbo Metropolitarrako hirigintzan, genero ikuspegiaren integrazioari buruzko telefono bidezko azterketa	1101	<b>1101</b>	0	Genero ikuspegiaren integrazio azterketa
Hasierako onespena jendaurrean jartzeko prozeduran parte hartzea	80 *3 parte-hartzailek ez dute esan emakumeak ala gizonak diren	<b>24</b>	53	Bilbo Metropolitarrako LPPri aurkeztutako iradokizunei buruzko txostena

Desbideratzeak al daude aurreko xedapen batetik lortutako datuen eta azterlan edo iturri ofizialetatik lortutako en artean? Hala bada, adierazi hautemandako ezberdintasunak:

Aurrerapenaren dokumentuan jasotako datuak iturri ofizialetatik bildutakoak dira (EIN, EUSTAT)

### **Baliabideak eskuratzea**

Zer **baliabide eskura dezakete** emakumeek eta gizonen xedapenaren jarduketaren eremuan (denbora, gunea, dirua eta baliabide ekonomikoak, informazioa, hezkuntza eta prestakuntza, enplegua eta lanbide karrera, etxeko lana edo ugalketakoa, teknologia berriak, osasun laguntzako zerbitzuak, etxebizitza, garraiobideak, aisialdia...)? Emandako erantzuna arrazoitzeko datuak eman daitezke.

#### **> Baliabide ekonomikoak eskuratzea:**

Emakumeek gizonen baino gutxiago parte hartzen dute lan jardueran, jarduerarik ezaren datuek adierazten dutenez. Bestalde, biztanle langabeen artean, gizon gehiago daude lanik gabe, kopuru guztiaren % 55, hain zuzen. Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea emakumeen eta gizonen arteko errentaren aldea: batez beste, gizonen baino % 45 errenta gutxiago jasotzen dute emakumeek Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalean, eta horrek esan nahi du alde nabarmena dagoela baliabide ekonomikoak eskuratzeko orduan.

- Emakumeen eta gizonen errenta mailen arteko aldea (2011): % 59; batez besteko errenta pertsonala (€) 14.078 euro emakumeetan, eta 25.628 euro gizonetan.
- Lanik gabe dagoen biztanle kopurua (2015): 35.163 emakume eta 42.873 gizon. Lanik gabe dauden biztanleen % 45 eta % 55, hurrenez hurren.



- Aktibo ez dagoen biztanle kopurua (2015): 257.004 emakume eta 199.755 gizon. Aktibo ez dauden biztanleen % 56 eta % 44, hurrenez hurren. Aurrerapena diagnostikatzeko dokumentutik hartu dira datuak, 2011n erreferentziazat hartutakoak. Datuak iturri ofizialetatik hartu dira (EIN, EUSTAT...).

#### > Denboraren erabilera

Eremu funtzionalean 1.101 emakumeri telefono bidez egindako inkesta batean oinarritutako azterketa egin da. Azterketa horretatik ondorioztatzen da emakume gehienek nagusiki etxebizitzaren inguruan egiten dituztela eguneroko bizitzako jarduerak, eta maizen egiten dituzten jarduerak elikagaien erosketari, mediku hitzorduei, gizarte bizitzari, kudeaketei eta bestelako erosketei lotutakoak direla, nahiz eta denbora gehien hauei lotutakoekin pasatzen duten: ordaindutako lana edo prestakuntza jarduerak, familiako pertsonen zaintza eta etxeko lanak. Halaber, egiaztatu da joan-etorrietan denbora gehien behar duten jarduerak adinekoren zaintzarekin, ordaindutako lanarekin edo prestakuntzarekin eta elikadurarekin zerikusirik ez duten erosketei buruzkoak direla.

#### > Garraioa

Azterketa horretatik ondorioztatzen denez, Bilbo Metropolitarrako emakumeak oinez ibiltzen dira, batez ere. Halaber, emakume gehienek diote garraio publikoa gehiago erabiltzen dutela eguneroko bizitzan (% 66k lehentasunez eta % 6k garraio pribatuaren neurri berean), eta, aldi berean, metroa dela emakumeek gehien erabiltzen duten garraio publikoa.

Garraio kolektiboaren kalitateak oso balorazio ona du, baina tarifa integratua sustatu behar dela eta ibilgailuen irisgarritasuna egokitu behar dela adierazi dute. Halaber, garraio geltokietara edo geralekuetara eramaten dituzten oinezkoentzako ibilbideetako espazio publikoen segurtasuna hobetzeko beharri buruzko gogoeta egiten dute.

#### > Ekipamenduak

Dauden ekipamenduetan, elkarrizketatutako emakumeek asebetetze maila handia adierazten dute, nahiz eta kirol, kultura ekipamenduak eta pertsonak zaintzeko nahiz artatzeko lanak erraztuko dituzten ekipamenduak eta zerbitzuak eskuratzeko eskari handiagoa dagoen.

Baliabideak eskuratzean **alderik** balego, xedapenaren bidez **murrizteko edo ezabatzeko ahaleginak** egingo dira? Nola?

Aldeak daude baliabideak eskuratzeari dagokionez, eta horiek murrizten edo ezabatzen saiatuko dira zeharka.

Baliabide ekonomikoak eskuratzeko, LPPn proposatutako lurralde ereduak hiri bilbe konplexuagoa eta trinkoagoa sustatzen du, irisgarritasun handiagoarekin garraio kolektiboaren eta ordezko mugikortasunaren bidez. Besteak beste, LPPak ezartzen du kokaguneen ereduaren helburuak direla jarduera ekonomikoen eskaintza doitzea, eremu funtzionalaren oreka bilatuz, herritarren enplegu eskaintzaren eta bizilekuaren eta mugikortasunaren arteko harremana hobetuz (55. artikulua). Besteak beste, industria lurzoru zaharkituak berronertzea sustatzen du, bideragarria den lekuetan bizitegi erabilerak eta jarduera ekonomikoak bateragarri egitea sustatuz. Hiri bilbearen konplexutasun horrek ordaindutako lana eta zaintzakoak uztartzen lagunduko du, kontziliazio erantzukidea sustatzeko ahaleginean (112. artikulua).

Denboraren erabilerari lotuta, mugikortasun ereduak bere helburuen artean proposatzen du "hiri eremuak garraio kolektiboaren, modu ez-motordunen eta intermodalitatearen bidez elkar lotzea, bizilekuaren, lanaren eta aisialdiaren arteko eguneroko joan-etorrietarako, bai eta ingurune naturalarekin eta landa ingurunearekin ere", joan-etorriak errazteko eta behar diren denborak murrizteko (77. artikulua). Horretarako, genero ikuspegia jasotzeko irizpide eta zehaztapenen artean sartzen du "zaintzaren mugikortasuna sustatzea, beste pertsona batzuen zaintzari lotutako bidaiak eta etxea mantentzea ahalik eta



denbora laburrenean egin daitezkeela ziurtatuz, eskatutako ordutegietan eta kostu onargarriarekin, pertsonei ordaindutako enplegua zaintza erantzukizunekin uztartzeko aukera emanez" (112. artikulua).

Ekipamenduen diseinuari eta zuzkidurari buruzko jarraibideak gehitu dira, emakumeen eta gizonen premietara eta interesetara modu orekatuan egokitzeari dagokionez, kiroletako eta hezkuntzako ekipamenduei erreferentzia berezia eginez.

Presentzia txikia duen sexuaren **autonomia handitzeko** ahaleginak egingo dira xedapenaren bidez? Nola?

Garraio publikoa eta mugikortasun alternatiboa lehenetsiz eta ezarriz, bai eta intermodalitatea sustatuz ere. Halaber, jarduera eremuen eta bizitoki eremuen arteko garraio kolektiboko loturak sustatuz, eta berronertzeko nahiz berrikuntzako eremuetako erabileren osagarritasuna bultzatuz (erabilera mistoak).

### **Erabakietan parte hartzea**

Xedapen arauemaileak erakunde onuradunak dituenen eta ez pertsona fisikoak. Xedapenaren erakunde onuradunen **gobernu organo gorenean** sortutako genero bidezko **bereizketa** kontuan hartzen al da? Eta erakundeetako **pertsonetan**? Nola? Emandako erantzuna arrazoitzeko datuak eman daitezke.

Ez da egokia.

**Neurririk** ezarri al da xedapenaren eremuan emakumeen eta gizonen **presentzia orekatua edo antzekoa behinik behin izatea bermatzeko**? Zein?

Ez da egokia.

**Presentzia orekatua** izatea aurreikusi da xedapena egitean eta betearaztean? Zein izan da?

Administrazioko barne talde teknikoa eta kontratatutako kanpo laguntza teknikoa emakumeek eta gizonek osatzen dute, eta bi sexuen ordezkartza % 40tik gorakoa da. Xedapena Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez onartu behar da. Berrikuspenaren hasieran bost emakumek eta lau gizonek osatzen dute, eta hasierako eta behin-behineko onarpenaren unean, bost emakumek eta bost gizonek.



## **Arau sozialak eta balioak**

Xedapen arauemaile honen bidez laguntzen al da emakume eta gizonentzat **ezarritako estereotipoak eta rolak** edo sexuaren araberako **lan banaketa eteten**? Eta eteten al dira emakumeek eta gizonek egiten dituzten zereginetara ematen zaizkien balio ezberdintasunak? Nola? Emandako erantzuna arrazoitzeko datuak eman daitezke.

LPPren helburua da kontziliazioa erantzukidea sustatzen laguntzea, ahal duen neurrian. Lurralde antolamendu orekatuaren oinarriak ezartzen ditu, hiri konplexutasuna sustatuko duena eta ordaindutako enpleguaren, zaintza lanen, ekipamendu publikoen eta aisialdiaren arteko desplazamenduak erraztuko dituena; nolahi ere, beste politika publiko batzuetatik bultzatu beharreko gainerako neurriak eta ekintzak bete ahalko dira.

Gainera, kiroletako eta hezkuntzako ekipamenduak diseinatzeko eta planifikatzeko gidalerroak ezartzen dira, zuzkidura mota horietan emakumeek eta gizonek dituzten rolei buruz hausnartzen duten proiektu eta ekimenen ildotik; horrekin batera, kulturako ondareari eta paisaiari buruzko gidalerroak ezartzen dira, emakumeek esparru horretan egiten duten ekarpena barnean hartzen duen ikuspegia sustatuz.

Kontuan hartzen al da emakumeen eta gizonen baitan dagoen aniztasuna? Nola? Emandako erantzuna arrazoitzeko datuak eman daitezke.

LPP inklusiboa da, inklusioko eta genero ikuspegiaren berariazko kapituluan jasotzen den moduan. Aniztasuna eta mugikortasun murriztua argi eta garbi jasotzen dira irisgarritasun unibertsalaren gidalerroen bidez, nahiz eta LPPren proposamenaren beste alderdi batzuek ere zeharkako eragina duten metropoli ingurune eta lurraldeko baliabideak eskuratzeko aukera berdintasunean.

## **Emakumeen eta gizonen berdintasun araudia betetzea**

Xedapen arauemaile honetan, erantzuna ematen al zaio emakume eta gizonen berdintasunerako lege/plan baten edo lege/plan sektorial baten konpromisoari?

Bai //  Ez

Baiezkoa bada, esan zein:

- > 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa.
- > Bizkaiko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako VI. Foru Plana, 2021-2024.
- > EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, 128/2019 Dekretua, ekainaren 30ekoa, 10.2 idatz zatia "Genero ikuspegia".



Betetzen al da arau edo tresna juridiko horiek adierazitakoa? Edo horietan adierazitakoa gainditzen du?

VI. Foru Planaren III. ARDATZA. BERDINTASUNA GARAPEN IRAUNKORREAN bete da: "Azkenik, hirugarren erronka zaintza-lanei mesede egingo dien eta genero-ikuspegia aintzat hartuko duen lurralde-diseinua sustatzera bideratutako programa garatzea da. Lurralde-antolamenduak berdintasunerako funtsezko alderdiak zehazten ditu, hala nola jarduera ekonomikoak, udalaz gaindiko ekipamenduak eta azpiegiturak. Giltzarria da, beraz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko baliabideak eskuratzeari eta eguneroko bizitza erraztuko duten azpiegiturak eta ekipamenduak izateari dagokionez. Genero-ikuspegia lurralde- eta hiri-plangintzan sartzeak berekin dakar espazio publikoak, ekipamenduak, etxebizitza eta abar familia zaintzeko eguneroko lanak eta ordaindutako lana ahalegin eta zailtasun gutxiagorekin egin ahal izateko moduan pentsatzea. Halaber, espazio publikoak eta garraioak seguruak izan behar dute, eta kalteberatasun-egoeran dauden emakumeen espazio- eta hiri-beharrak kontuan hartu behar dira, baita sarbide ekonomikoko mugak ere, herritar guztien bizi-kalitatea hobetuko duten lurralde eta hiri bidezkoagoak eta seguruagoak sortzen lagunduz. Kontuan hartuta zaintzaren kontzeptua eta horrek lurraldearen antolamenduan dituen inplikazioak funtsezko elementuak direla genero-ikuspegitik, lurralde-antolamenduan berdintasunari heltzeak zaintzaren kontzeptua izan behar du ardatz nagusi, zaintzak lurraldearen plangintzan, eraikuntzan eta kudeaketan dituen inplikazioak aztertuz" eta, zeharka, 9.2 helburua "Bizkaiko Lurralde Historikoaren mugikortasun sistemaren aukerak eta ezaugarriak emakumeen beharretara gehiago egokitu". Zehaztasun maila aldatu egiten da alderdi jakin bakoitzaren arabera. Gainera, LAGek 30. artikuluan zehaztutako lurralde mailari buruzko gidalerroak betetzen dira.

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK EZABATU ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO NEURRIAK**

<b>Ezarri al da neurririk xedapen arauemaile honen gaineko prozeduran...?</b>		<b>Adierazi zer artikulutan txertatu diren neurriak eta horien deskribapena</b>
<b>... genero ikuspuntua kontuan hartzen dela sustatzeko?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Emakumeen eta gizonen berdintasuna printzipio edo helburu gisa sartuz, edo adierazpen edo azalpen gisa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; 11.7 artikulua, helburu estrategikoen barnean.</li> <li>&gt; 112. artikulua, integrazioaren eta genero ikuspegiaren berariazko kapituluaren barnean.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Hizkuntza ez-sexista eginez edo sustatuz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Informazioa, Diagnostikoa eta Memoria eta Araudia, modu desberdinean. Berrikuspena egin behar da dokumentua behin betiko onartu aurretik.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Sexuaren arabera bereizitako datuen erabilera eginez edo sustatuz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>&gt; Informazioa eta diagnostikoa. Azterketa demografikoa.</li> <li>&gt; 112.2.B.a artikulua, mugikortasun jarraibideei buruzkoa.</li> <li>&gt; 112.2.B.c artikulua, plangintzarako lan tresnak.</li> </ul>





	<input type="checkbox"/> Emakumeen eta gizonen berdintasuna eduki edo irizpide gisa sartuta (onartzeko, baloratzeko edo betearazteko) aukeraketa-prozesuetan, dirulaguntzetan, hitzarmen edo jardueretan, prestakuntzan...	
	<input checked="" type="checkbox"/> Emakumeen eta gizonen egoera bereziari buruzko ezaguera hobetuz.	<p>&gt; Informazioa eta diagnostikoa. Azterketa demografikoa.</p> <p>&gt; 112.2.B.a artikulua, mugikortasun jarraibideei buruzkoa.</p> <p>&gt; 112.2.B.c artikulua, plangintzarako lan tresnak.</p> <p>&gt; 106. artikulua, kultura paisaiei buruzkoa.</p> <p>&gt; 112.2.F.a artikulua, kultura paisaiei buruzkoa.</p>
	<input type="checkbox"/> Genero kontuetan prestakuntza duten pertsonen edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen partaidetza sustatuz	
	<input type="checkbox"/> Beste batzuk, zehaztu:	
<b>... emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko?</b>	<input type="checkbox"/> Hautaketa epaimahaietan.	
	<input type="checkbox"/> Sarien epaimahaietan.	
	<input type="checkbox"/> Kontsulta organoetan.	
	<input type="checkbox"/> Zuzendaritza organoetan.	
	<input type="checkbox"/> Beste batzuk, zehaztu:	
<b>...ekintza positiborako?</b>	<input type="checkbox"/> Emakumeentzat.	
	<input checked="" type="checkbox"/> Gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde engaiatzeko	<p>&gt; 112 artikulua, inklusioari eta kontziliazio erantzukideari buruzkoa</p>
	<input type="checkbox"/> Beste batzuk, zehaztu:	
<b>... itxuraz neutroa dena, baina aurreikusteko moduko genero eragin positiboa izan dezakeena?</b>	<input checked="" type="checkbox"/> Indarkeriaren biktimentzat.	<p>&gt; 68.5 eta 68.6 artikulua, babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzetarako eta zuzkidura bizitokitarako lurzoru erreserbari buruzkoa.</p>



	<p>■ Guraso bakarreko familientzat.</p>	<p>&gt; 68.5 eta 68.6 artikulua, babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzetarako eta zuzkidura bizitokietarako lurzoru erreserbari buruzkoa.</p> <p>&gt; 62.2 artikulua, birgaitzeko jarduketan etxebizitza tipologiak egokitzeari buruzkoa.</p> <p>&gt; 77. artikulua, mugikortasun ereduari buruzkoa.</p> <p>&gt; 76. eta 77. artikulua, bidaiarien intermodalitateari buruzkoa.</p> <p>&gt; 112.2.D artikulua, etxebizitza tipologia dibertsifikatzeari buruzkoa</p>
	<p>■ Mendeko pertsonen zaintzaz arduratzen direnentzat</p>	<p>&gt; 56. artikulua, hiri hazkundearen perimetroa ezartzeari buruzkoa.</p> <p>&gt; 77. artikulua, mugikortasunari, modu ez-motordunei eta garraio kolektiboari eta intermodalitateari buruzkoa.</p> <p>&gt; 80.2 artikulua, trenbide sarea garraio kolektibo gisa sustatzeari buruzkoa.</p> <p>&gt; 77. artikulua, bidaiarien intermodalitateari buruzkoa.</p> <p>&gt; 10. titulua, 2. kapitulua, irisgarritasun unibetsalari buruzkoa.</p> <p>&gt; 10. titulua, 4. kapitulua, osasunari buruzkoa.</p>
	<p>■ Beste batzuk, zehaztu:</p> <p>&gt; Ekoizpen lanaren eta zaintza lanaren kontziliazio erantzukiderako</p>	<p>&gt; 55. artikulua, kokapen ereduari buruzkoa.</p> <p>&gt; 56. artikulua, hiri hazkundearen perimetroari buruzkoa.</p> <p>&gt; 59. artikulua, esku hartzeko moduei buruzkoa: berroneratzea, berritzea, birgaitzea, birdentsifikatzea eta desklasifikatzea.</p> <p>&gt; 61.2 artikulua, berrikuntzaren bidez erabilera mistoak ezartzeari buruzkoa.</p> <p>&gt; 63.1 artikulua, birdentsifikazioaren bidez erabileren dibertsitateari eta osagarritasunari buruzkoa.</p>



		<p>&gt; 64.2 artikulua, garatu gabeko lurzoruen desklasifikatzeari buruzkoa.</p> <p>&gt; 72.3 artikulua, jarduera ekonomikoen lurzorueta mugikortasunari buruzkoa.</p> <p>&gt; 77. artikulua, intermodalitateari eta garraio publikoaren nodoetarako sarbideari buruzkoa.</p> <p>&gt; 112.2.B artikulua, zaintzaren mugikortasunari buruzkoa.</p>
<p><b>...askotariko diskriminazioa jasaten duten emakumeen desberdintasunak gutxitzeko?</b></p>	<p><input checked="" type="checkbox"/> Adinaren arabera</p>	<p>&gt; 68.5 eta 68.6 artikulua, babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzetarako eta zuzkidura bizitokietarako lurzoru erreserbari buruzkoa.</p> <p>&gt; 77. artikulua, mugikortasunari, modu ez-motordunei, garraio kolektiboari eta intermodalitateari buruzkoa.</p> <p>&gt; 79. artikulua, oinezkoentzako eta bizikletetako sareari buruzkoa.</p> <p>&gt; 77. artikulua, bidaiarien intermodalitateari buruzkoa.</p> <p>&gt; 62.2 artikulua, birgaitzeko jarduketan etxebizitza tipologiak egokitzei buruzkoa.</p> <p>&gt; 111.2, 112. eta 113.2 artikulua, adinekoen ostatu moduei, adinekoen parte-hartzei eta ekipamenduetako eta espazio publikoko irisgarritasun unibertsalari buruzkoa.</p> <p>&gt; 112.2.D artikulua, etxebizitza tipologia dibertsifikatzeari buruzkoa.</p>
	<p><input checked="" type="checkbox"/> Gizarte klasearen arabera</p>	<p>&gt; 68.5 eta 68.6 artikulua, babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzetarako eta zuzkidura bizitokietarako lurzoru erreserbari buruzkoa.</p> <p>&gt; 112.2.D artikulua, etxebizitza sozialetarako lurzorua erreserbatzei buruzkoa.</p>
	<p><input type="checkbox"/> Sexu aukeraren arabera</p>	
	<p><input checked="" type="checkbox"/> Desgaitasunaren arabera</p>	<p>&gt; 68.5 eta 68.6 artikulua, babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzetarako eta zuzkidura bizitokietarako lurzoru erreserbari buruzkoa.</p>



		buruzkoa. > 55. artikulua, kokapen ereduari buruzkoa. > 75. artikulua, mugikortasun ereduari buruzkoa. > 10. titulua, 2. kapitulua, irisgarritasun unibetsalari buruzkoa.
	<input type="checkbox"/> Etnia eta/edo arrazaren arabera	
	<input type="checkbox"/> Jatorri nazionalaren arabera	
	<input checked="" type="checkbox"/> Beste batzuk, zehaztu: <a href="#">genero indarkeria</a>	> 112.2.D artikulua, etxebizitza sozialetarako lurzorua erreserbatzeari buruzkoa.
...debekatzekoa edo zigortzekoa?	<input type="checkbox"/> Sexuaren ziozko bazterketa egiteagatik	
	<input type="checkbox"/> Hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista egiteagatik	
	<input type="checkbox"/> Beste batzuk, zehaztu:	

Xedapen arauemaile honen edukia alde batera utzita, aurreikusten al da neurriren bat hartzea?	Deskribapena
<input type="checkbox"/> Zabalkundea indartzeko ekintzak	
<input type="checkbox"/> Jarraipen eta ebaluazioko jarduketak	
<input checked="" type="checkbox"/> Estatistikak egokitzea eta berariazko azterlanak egitea	Diagnostikoan sakabanatutako estatistika demografikoak sartu dira. > Bilbo Metropolitarrako hirigintzan genero ikuspegiari buruzko 1.101 emakumeri eta hiruadituri telefono bidezko azterketa egin zaie.
<input checked="" type="checkbox"/> Informazio, sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak	> "Lurralde inklusiboa, euskara eta osasuna" gaiari buruzko foroa. > Zortzi saio parte-hartzaile, informazio eta diagnostiko dokumentua alderatzeko. Horietan, zeharkako gaiak



		eta lurralde plangintzan genero ikuspegia txertatzeko garrantzitsuak direnak ere landu ziren. > Genero ikuspegiaren azterketa aurkeztea eta udalei bidaltzea.
	<input checked="" type="checkbox"/> Arauak, planak edo programak egokitzea edo hartzea	> Sektoreko eta udaleko plangintzak LPPn xedatutakora egokitu behar dira (1. eta 5. artikulua).
	<input type="checkbox"/> Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egitea	
	<input type="checkbox"/> Egiturak edo zerbitzuak sortzea	
	<input type="checkbox"/> Beste batzuk, zehaztu:	